# EDITORIAL

## *Hortz handia, katalina txikia*

*MENDIKO bizikletaren gaia Pyrenaican, 1987.eko hasieretan Txema Garridoren artikulu sartzaile hura agertu zenetik, ia ale guztietan ateratzen da. Egia esan, bizikletak azken hamarkada honetan muga guztiak apurtu ditu, urrunegi ez ditugun ekintzetan: gazteiztarren munduko goiera-recorda Peruko Abra Antikonan 1981.urtean, Dikastillok eginiko Mexikotik Argentinarako bidaia izugarria bezalakoak, edo Alain Guigny eta Babeth Le Pajolecen munduko bira urte berdinetan egina 80.etik 82.era, eta Lur globoko mendi handienetan zeharko pedalealdiak, batez ere Crane lehengusuen abenturak (Himalayako zeharbidea 1984.urtean, Kilimanjarorako igonaldia 1985.ean eta «Lurraren erdigune»ra heltzea, edozein norabide harturik itsasotik urrutien dagoen puntura, Txinakoa den Xinjiangen 1986.urtean), azken gabon hauetan Eneko Atxak Akoncagua bizkarrean egindako lehen gainbeheraldi amaitu berria ahantzi gabe.*

*Nabaria da bizikleta modan jartzen ari dela gure artean —hara non orain nire lagun guztiei bizikleta bana erregalatzen ari zaien!— eta mendiko bizikleta behin betirako ari da zabaltzen (orain dela urte gutxiko jatorrizko ideia hura). Gero eta gehiago hedatzen da aktibitate osasuntsua, dibertitzailea eta ekologikoa delako sinestea. Mendiko bizikletak —azken finean errepidekoa baino seguruagoa— sorpresaz beteriko mundu oparioa zabaltzen du, zeharo gozatzeko momentuak ematen ditu. Mendibizikletazaleak parte hartzen ari dira bide luzeetan ere: Tolosako 14 orduak, «Hiru Aundiak» delakoa.*

*Poztekoa da benetan Miguel Angulo bezalako pertsonaia batek, hainbesteko kategoria duena, gurekin batera lan egin dezan. Kontu izan Pyrenaicarekin, zeren ale honetan gure federatuak harro jarriko dituzten beste lankidelanak ere badaude eta, balio handikoak eta kanpotik igorriak. Adibidez, Evelio Echevarriak, txiletar irakasle bihotzekoa, aspaldidanik Andes mendikateari dagokion arloan munduko erreferentzi puntu garrantzitsuena seguru asko, oso idazlan baliagarria bidali digu esklusibaz, ale hau zabaltzeko erabili duguna, Santa Marta mendilerroari buruzkoa —derrigorrez joan behar deneko lekua, batez ere Colombia sufrituaren egoera argi dadinean—, edo Norman Croucher, garaipen, apaltasun eta humore onaren exenplu apartekoa (goza ezazue Pyrenaicari egin dizkion deklarazioekin). Esan beharra dut oraindik ez zaidala pasatu Stefan Worneren heriotzak sorterazi zidan zirrara, orain dela egun batzu eta Cho-Oyu mendia jaisten ari zela. Berriro orrikatzen dut Antartidari buruz bidali zigun artikulua eta 1987.urteko azken alean argitaratu genuena, berriro irakurtzen dut lerro artean bere azkenagur hurbilaren oharraurreren bat aurkitu nahian, ... eta errepikatu egiten dizkiot nire buruari begietan malkoak direlarik haren azken hitzak: welcome back!*

*Hau danau aipatu badugu izan da Bardeetan bizikletei buruzko artikulua aurkezteko (eta begira militarrek ez dutela handik alde egiterik nahi, non inguru guztiak zikinduz 40 urte bait daramate jada, mundu guztiak eskatzen dien arren. Nola esan beharko diegu joan daitezen?). Beno, Miguel Anguloren gonbidapena onartu eta Urriaren 29.ean Peñaflor deritzon gazteluaren inguruetara hurbil zaitezten animatzen zaituztet. Hantxe elkartuko gara oso bide kuriosoa burutzeko hurrengo egunean. Eta agian mountain bikea Euskal Mendizale Federakundean instituzionalizatzeko balioko du. Hala bedi!*

## Piñón grande, catalina pequeña

**EL tema de las bicis de montaña sale prácticamente en todos los números de Pyrenaica, desde que apareció aquel artículo introductorio de Txema Garrido, a comienzos de 1987. Y es que la bici ha roto todos los límites en esta última década, en hazañas que muchas veces no nos quedan lejos: el récord mundial de altura de los vitorianos en el Abra Anticona de Perú en 1981, grandes viajes como la travesía de México a Argentina que hizo Dicastillo o la vuelta al mundo de Alain Guigny y Babeth Le Pajolec en los mismos años del 80 al 82 y las pedaladas por las más grandes montañas del globo, sobre todo las aventuras de los primos Crane (la travesía de los Himalayas en 1984, el ascenso al Kilimanjaro en 1985 y la llegada al «centro de la tierra», el punto más alejado del mar en cualquier dirección, en la provincia china de Xinjiang en 1986), sin olvidar el reciente primer descenso del cerro Aconcagua por Eneko Atxa en estas últimas navidades.**

**Es claro que la bicicleta se está poniendo de moda entre nosotros —ahora resulta que a todos mis amigos les están regalando una bici— y se extiende definitivamente la bici de montaña (aquella idea original de hace unos pocos años). Se difunde el convencimiento de que es una actividad sana, divertida y ecológica. La bici de montaña —al final menos peligrosa que en la carretera— ensancha los horizontes, abre un espléndido mundo de sorpresas, proporciona momentos de disfrute pleno. Los bicimontañeros empiezan incluso a tomar parte en las marchas largas: las 14 horas de Tolosa, la de los Hiru Aundiak.**

**Suerte que tenemos de que colabore con nosotros un personaje de tanta categoría como Miguel Angulo. Ojo con Pyrenaica, que en este número también hay otras colaboraciones exteriores de altísimo valor, que pueden enorgullecer a nuestros federados. Por ejemplo, Evelio Echevarria, el entrañable profesor chileno, probablemente la más importante referencia mundial, desde hace tiempo, sobre los Andes y que nos ha mandado un valioso trabajo en exclusiva con el que abrimos este número, sobre la sierra de Santa Marta —un sitio al que absolutamente hay que ir, sobre todo cuando se aclare la situación en la sufrida Colombia—, o Norman Croucher, ese extraordinario ejemplo de superación, sencillez y buen humor (disfrutad con sus declaraciones para Pyrenaica). Por cierto, que todavía no se me ha pasado la impresión por la muerte de Stefan Worner hace unos días, bajando del Cho Oyu. Vuelvo a hojear el precioso artículo que nos mandó sobre la Antártida y que publicamos en el último número de 1987, lo releo entre líneas buscando alguna premonición sobre su próxima despedida... y me repito con lágrimas en los ojos sus últimas palabras: ¡Welcome back!**

**Todo esto venía a cuento para introducir el artículo sobre bicis en las Bardenas (y mira que los militares se resisten a marcharse de allí, donde llevan ya 40 años enmierdando, a pesar de que se lo está pidiendo todo el mundo. ¿Cómo habrá que decirles que se vayan?). Bueno, os animo a aceptar la invitación de Miguel Angulo y a aparecer con la bicicleta todo-terreno por las cercanías del castillo de Peñaflor el 29 de octubre. Allí nos encontraremos para hacer un curiosísimo recorrido al día siguiente. Y quizá sirva para institucionalizar el mountain bike en la Federación Vasca de Montaña. Así sea.**